



8-10 URTE

heldu

JARDUERA	JARDUERAK	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA
1	Korrikaren aurkezpena Korrika 15en bideoklipa eta abestia.*	- Korrika 15en aurkezpena girotzea.	- Bideoklipa ikusi. - Korrika 15en kantua entzun, leloa erakutsi eta mezua aipatu. - Sarrera eta irteera orduetan, bazkal orduetan eta jolasaldietan bozgorailuetatik Korrika 15en kantua jarriko da. Honekin batera, euskara eta erabilera goraipatzen dituzten abestiak jar ditzakegu.	- Bideoklipa lehen egunean jarriko dugu, kanpainaren hasiera legez. - Korrikako kantua Korrikak irauten duen egun guztietan jarriko da bozgorailuetatik.
2	Korrika 15en kantua.	- Taldean kantatzeko teknikak lantzea.	- Korrika 15en kantua taldean egoki kantatzea landuko da eta eskolan egingo den jaialdian edo Korrika Txikian kantatuko da.	- Musika saioetan prestatu.
3	Ipuina.*	- Kidetze plana abian jartzea. - Ahozotasuna eta irudimena lantzea. - Ilustrazioen komunikaziora hurbiltzea.	- Zenbait proposamen: 1. KIDETZEA. Ipuina gidoitzat hartu eta antzerki emanaldia prestatuko dute ikasle gaztetxoentzat. 2. KIDETZEA. Gaztetxoenen gela-tara joan eta ipuina irakurri. Gaztetxoentzat ipuinaren laburpena prestatu. 3. KIDETZEA. Ipuina piktogramen laguntzaz kontatzea.	- Ipuinaren lehen kontaketa 30' har ditzake.

heldu

JARDUERA	JARDUERAK	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA
4	Ipuina ilustratu taldeka.	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozkotasuna eta irudimena garatzea. - Ilustrazioen komunikazioa hurbiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeka ipuina ilustratuko dute, piktogramak eginez. Talde bakoitzak gutxienez 5 piktograma egin beharko ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ipuina entzun, ulertu eta marrazkia egin ondoren.
5	Erabilera kanpaina: "OTSANDA ETA DINOSAUROAK".*	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko hizkuntza komunikazio tresna izan dadin testuinguruak eskaintzen dituen egoera komunikatiboetan eragitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - "Otsanda eta dinosauroak" kanpaina aurkeztu eta erregistroa burutuko da. - Otsandaren gutunarekin emango zaio hasiera kanpainari, eta ikasleek bere gonbidapena jasoko dute Karrantzako Karpin abentura parkera joateko (Euskal Herriko faunaren historia eta planetako errealitate biziduna ezagutzeko ibilaldia). - Erregistro indibiduala edo gelakoa egiteko dinosauroen orria erabiliko da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpainak Korrikak irauten duen bitartean euskararen erabilera suspertzeko balio izango du. Jarraipena ziurtatu behar da.
6	Lekukoa.*	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazpen plastikorako oinarritzko teknikak ezagutzea. - Ikasleak lekukoaren sinbologiaz ohartaraztea. - Ikasleek euskararekiko konpromisoak hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lekukoak taldeka egingo dira. Horrela gela bakoitzak lauzpabost lekuko izan ditzake. Ondoren, gelakoa hautatu. - Irakasleak lekukoaren sinbologia, garrantzia azalduko die ikasleei. - Aurten lekukoak estalaktita itxura izango du, Karrantzako Pozalaguako kobetan eskegita dauden antzerakoa. - Korrika Txikian lekukoa erabiliko da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lekukoaren plantila margotzeko eta konpromisoa pentsatzeko edo hautatzeko saio bat. - Lekukoa egiteko plastikako saio bat.

JARDUERA	JARDUERAK	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA
7	Petoa.*	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat plastika adierazpenen oinarritzko teknikak eta baliabideak erabiltzea. - Ikasleek euskarekiko konpromisoak hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Korrika Txikirako edo ikastolan egingo den jaialdirako petoa prestatu. - Petoaren aurreko aldean Korrika 15en logoa jarriko dugu. Petoaren atzeko aldean ikasle bakoitzak euskararekiko hartu duen konpromisoa idatziko du. - Korrika 15en logoa erabiliz kartel erraldoiak egin daitezke norberaren edo gelako konpromisoekin eta eskola apaintzeko erabili. 	<ul style="list-style-type: none"> - Petoa eta kartel erraldoiak egiteko plastika ikasgaiko ordu bat erabiliko dugu. - Konpromisoei buruz hitz egiteko tutoretza ordu bat hartuko dugu.
8	Euskal Herria. Korrika 15en ibilbidea.*	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herria ezagutzea. - Korrika 15 jarraitzea. - Argazkiak deskribatzeko gaitasuna lantzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko mapa gela barruan jarriko dugu eta bertan Korrika 15en ibilbidea markatuko dugu. - Egun bakoitzean hasiera puntutik bukaerarainoko ibilbidea markatu. - Egunkarian ateratako argazkiak ibilbidean kokatu eta lekuen deskribapenak ahoz osatuko ditugu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko mapa mutua jarriko dugu gela bakoitzean. - Egunero 30/45 minutu hartuko ditugu eguneko ibilbidea markatu, egunkarietan argitaratuko argazkiak bildu eta deskribatzeko.
9	Korrika Txikia eta jaialdia.	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara une atsegin eta gozamenarekin identifikatzea. - Gelaz kanpo eta jende askoren artean ere ongi eta segurtasunez moldatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Jaialdia Korrika Txikia antolatzen den egun berean egingo da. Elkarrekin ospatzeko eguna da, beraz, kideak kontuan izango da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Korrika pasatzen denean egin daiteke, Korrika ez bada herritik pasatzen, beste edozein egunetan egin daiteke.

* Garatutako jarduerak

MEZUA HELDU

Euskaldunok euskaraz mintzatuz adierazten dugu geure euskaldun izaera, euskaraz hitz eginez egiten dugu Euskal Herria. Euskara da gure nortasun agiria, euskara da munduari hemen herri bat dagoela adierazteko oinarria. Horregatik diogu **HELDU HERRIARI**.

Bada garaia urteetako menderakuntza, jazartze eta zigorren ondorioz baztertua izan den euskarak bere esparrua berreskuratzeko. Euskarak Euskal Herri osoko hizkuntza izan behar du. Horretarako, konpromisoak behar ditugu, eta aurreko Korrikaren mezuari jarraituz, konpromisoaren beharra eta balioa azpimarratu nahi ditu Korrika 15ek, ez garelako hutsetik abiatzen. Horregatik diogu **HELDU HITZARI**.

Belaunaldiz belaunaldi kontra izan dituen legeei aurre eginez, euskararen aldeko konpromisoari heldu zioten euskaltzaleei esker dirau euskarak. Lagun horien konpromisoa eta elkarlanean aritzeko borondatea izan ziren euskarak, oztopo guztien aurka, gaur egun arte bizirik jarraitzeko euskarria. Horregatik diogu **HELDU ELKARLANARI**.

Korrika 15ek, beraz, euskara ikasi eta erabiltzea eskatzen digu euskal herritarroi, eremu berriak zabaltzeko eta elkarlanean aritzea. Eta alderdi, sindikatu, elkarte eta erakunde guztiei, euskara ukatzera datozen legeak eta jarduerak baztertu eta euskaraz bizi ahal izateko bideak eraikitzea. Horregatik diogu **HELDU EUSKARARI**.

Iraganeko kemenak eman du emaitzarik, baina oraindik asko daukagu egiteko. Orduko lanaren fruitua jaso dugunoi dagokigu orain lekukoa hartzea. Horregatik diogu **HELDU LEKUKOARI**.



IPUINA KORRIKA

Pozalaguako leizeen barren-barrenean, haitzuloaren zati ezkutuan, zokorik ilunenean, lasto epelen gainean etzanda, lo ederrean ari zen Otsanda. Lo ederrean, eta zurrunga latzean. Ez pertsona arrunt batek egiten duen moduan grarr-groorr arnasestu hotsak sortuz. Ez, ez. Soilik hartzek, otsoek eta, sagardotegitik bueltan, bertsolariek egiten duten moduan baizik, GRARRR-GROORR orro gisako zurrungak boteaz. Eskerrak, Otsanda otsakume gaztea zen oraindik. Bere neba zaharrena edota, okerrago, aita egokituz gero, ez zen zarata jasaterik izango.

Hala ere, ez zen makala Otsandak sortzen zuen zurrunga hotsa ere. Hainbestearino, ze aurrekoak baino ozenagoa izan zen azken zurrungak izututa, Otsanda bera kolpetik esnatu baitzen.

Begiak zabaldu, makarrak garbitu eta ingurura begiratu zuen:

– Non ote nago?

Haitzuloko sabaitik behera luzatzen ziren estalaktita ederrak ikusi zituen, etxeak baino handiagoko leize zabalak eta, irribarre batez, Pozalaguan zegoela oroitu zen. Negua heldu aurretik, hantxe babestu zen gainontzeko otsoekin batera.

Makarrak kendu zituen berriro, ezker-eskuin begiratu.

– Non daude besteak baina?

Lanturu triste bat irten zitzaion Otsandari. Lo hartu eta bere lagunak galdu zituen! Bera han ahaztuta alde egin zuten. Otsoen izaera ez da malko asko isurtzekoa, ordea. Ilargiari bakarrik egiten diote negar, eta hori ilargi beteko gauetan baino ez. Nagiak atera, eta lagunak bila korrika hasi zen, beraz, Otsanda, muinoz muino eta sakanetik sakanera.

Karrantzako inguru ezagunak utzi eta, otsorik ez topatzean, Araba aldera jotzea erabaki zuen Otsandak. Bera, gaztea izaki, ez zen



3. JARDUERA

8-10 URTE

sekula inguru haietan ibili. Aitona Otxotorenak, hala ere, otsoak garai batean lur haietan guztietan lasai mugitzen zirela kontatua zion.

Hala ere, kezka apur bat sortzen zion bide hura bakarrik egiteak. Eta gizakiekin topo eginez gero, zer? Zenbait gizaki otsoen beldur zirela entzuna zien taldeko nagusiei. Basapiztia izugarri eta arrotz moduan hartzen zituztela, nahiz eta beste askok, geroz eta gehiagok, haien alde ere lanean jardun. Otsandak beldur hori ezjakintasunaren fruitu zela pentsatu zuen. Ezagutzen eta ulertzen ez dugunak sortzen baitigu ia gehienetan beldurra.

Pentsamendu horrek aurrera jarraitzeko adorea eman zion. Airean, gainera, otso usaina nabaritzea iruditu zitzaion. Handik igaro ziren bere lagunak.


Usain arrastoari jarraituz, Errioxako mugaraino iritsi zen Otsanda, Bastida inguruetara. Mahastiz jositako paraje eder haietan geratzeko gogoia izan zuen, baina bere usaimenak berriro gora, Gasteiz aldera jotzeko agintzen zion eta atsedetik hartu gabe segitu zuen bidea.

Lotan denbora asko galdua izango zuen, ordea, Gasteizera ere berandu heldu baitzen. Otsoen lorratzak topatu zituen han. Lurrean garbi zegoen oinaren forma. Bai, han izan ziren bere lagunak, baina Gipuzkoarantz abiatu ziren gero.

Muga igaro eta gau eta egun egin zuen korrika Otsandak, zubiak gurutzatu, mendiak igo, bailarak zeharkatu eta amildegien artetik egin zuen jauzi, sekula ere itxaropenik galdu gabe. Otsoak, izan ere, iletsuak izateaz gain oso egoskorak dira. Belarri eta belarri artean zerbait sartzen bazaie, ez dute etsiko lortu artean.

Etsi, hortaz, ez zen etsitzen ari Otsanda bere bilaketa luzearekin.

Nekatzen bai, ordea. Eta majo gainera. Urruti ez zebilela sumatzen zuen, otso usaina gero eta indartsuagoa zen bazter guztietan, baina hainbeste bide egin eta ez zuen inor topatzen. Gipuzkoa zeharkatu zuen, Pasaian bira eman, Bizkaiko



beste muturreraino iritsi, atzera Bilbora itzuli, handik Zeanuriraino... eta ezer ez.

Agurain igaro, Sakanan barrena pauso geldian zihoan Otsanda, sinetsi ezinik, urrutira korrika zihoazen bi irudi ikusi zituenen. Belarriak tentetu eta fandangoa dantzatzan jartzeko gogoa sartu zitzaion. Azkenean! Abiadura bizkortuz, bere aurretik zihoazen bi korrikalariak harrapatu zituen.

Ez ziren otsoak baina. Gizakiak ziren. Kolpera izututa, Otsanda uzurtu egin zen makilakada baten beldur. Berehala, ordea, amultsuki diosala ematen zion ahots gozoa entzun ahal izan zuen.

– Ongi etorri, gazte! Zer, nolatan habil paraje hauetatik hain bakarrik? Otsandak, beraien parera jarri eta korrika egiteari utzi gabe, mintzatu zitzaion andreari begiratu zion. Ile urdinuari eta sudur gaineko antiojoei. Baita soinekoaren gainetik janzen zuen zenbakidun dortsalari ere. Arraroak ziren benetan gizakiak! Bere aldamenean, biloba izango zuen neskatilak irribarretsu begiratzen zion Otsandari. Gari koloreko mototsak ageri zitzaizkion kapusai gorriaren azpitik. Hark ere txaleko tankerako dortsal hura zeraman.

Otsandak, gizaki haiek beraganako asmo txarrik ez zutela erreparatuta, erantzuteko garaia zela erabaki zuen.

– Gabon, andrea. Otsanda naiz. Neure otso taldea galdu dut eta bide luzea daramat haien atzetik, usainari jarraiki, noiz topatuko zain. Orain arte ez dut zorte handirik izan ordea.

– Beno, lasai. Ez etsi ez tristatu horregatik. Gu ere beste batzuen atzetik gabiltzan, Iruñea bidean. Oraindik ere badinagu bide pixka bat Nafarroan barna. Etorri gurekin nahi badun. Ez ditun hauek bakarrik ibiltzeko bideak. Aizkolari edo ehiztari batekin topo eginez gero ere...

– Eta zuek? –galdetu zuen Otsandak jakin-minez – Zuek ez al zarete haien beldur? Otsoena ere ez?

– Gu? Neska, neska... Gu bestela ere bakarrik moldatzera ohituta gauden, bai. Eta bazekinagu zer den gure herrian arrotz sentitzea gainera. Ezagutzen ez denak ematen din beti beldur handiena.

Otsandak baiezkua egin zuen buruaz, barrutik pozez gainezka. Aitona Otxotorenak bezain zuhur hitz egiten zuen amona hark. Ia hitz

berberak erabiliz. Bitan pentsatu gabe, bada, haiekin joatea erabaki zuen.

Gorritxotarrekin egin zuen aurrera Nafarroan barna hortaz. Amona eta bere biloba Txanogorritxorekin. Hegoalderaino iritsi ziren, Tuterara pareraino eta handik atzera gora berriz, Donibane Garaziraino. Bidean, tarteka, amonak prestatutako jaki goxoren bat irensteko geldialdixoren bat egiten zuten berriz ibilbideari ekin aurretik. Ez zeuden bakarrik gainera. Gorritxotarrekin korrika hasi zenetik, beste jende multzoa bildu zitzaion inguruan. Eta gero eta gehiago ziren, Iruñera hurbildu ahala. Inork ez zion, ordea, Otsandari begi txarrez begiratzen. Kantari eta alai zebiltzan guztiak, bidean zalaparta ugari eginaz.

Otsandak, nekatuta baina pozez gainezka, sudurzuloetara usain ezagun bat iristen zitzaiola sumatu zuen Iruñeko ateetan.

– Amona! Taldekoak hemen daudela uste dinat!

– Bai horixe! Banekinan nik! Ikusten? Helmuga beti zagon han zain korrika bertara heldu nahi duenarentzat. Tori, jantzi ezan hau lepoan –amonak gorri koloreko zapi bat eman zion Otsandari–. Nik neuk egin dinat hiretzat. Iruñera behar den moduan sartu beharra zagon!


Horrela sartu ziren amona, Txanogorritxo eta Otsanda, lepoan zapi gorria zeramala, Iruñera. Jendetza zen bertan. Zahar eta gazte, haur eta heldu. Denak barrez.

Baita Otsandaren otso taldea ere, helmugarako azken metroak eginaz zenbakidun dortsalak jarrita. Otsandari bihotzak eztanda egin behar ziola iruditu zitzaion.

- Heldu gara! – egin zuen algara- Hau da hau jende pila hau! ULUUUUU!!!!
















OTSANDA ETA DINOSAUROAK**HELBURUA:**

Ikasleak euren artean beti euskaraz mintzatzea.

MATERIALA:

- Erregistro orria: ikasleak bere jarduna autoerregulatzeko eta jarraipena egin ahal izateko dinosauroen orria (A-4an).
- Gelako erregistroa: gelako jardunaren jarraipena egin ahal izateko. Ikasle bakoitzari banatutako erregistro orria bera erabiliko dugu. Gelako txoko ikusgarriren batean kokatu beharko dugu.
- Otsandaren gutuna.

GARAPENA:

- Lehendabizi Otsandaren gutuna irakurriko dugu gelan (irakasleak edo ikasleren batek egingo duen erabaki beharko da).
- Erregistro orriak banatu, nork bere izena ipini eta kanpaina azalduko diegu ikasleei.
- Bakoitzak guztira 10 dinosauroen irudiak izango ditu. Euskaraz eginez, eguneko, dinosauro bat margotzeko aukera izango du.
- Gelako erregistroa: gelako guztiek (edota gehienek) lortzen badute, gelako erregistroan ere dinosauro bat margotzeko aukera egongo da. Gelako txoko ikusgarriren batean kokatu beharko dugu.
- Otsandaren gonbidapena jasoko dute Karpinera joateko.

2007ko Korrika

Kaixo, lagun maiteak:

Zer moduz lagun eta irakasleekin?

Ikusten dut gehienetan ondo moldatzen zaretela eta gustura zabiltzate.

Badakizue ni noiz nagoen oso pozik?

Andereñorik eta maisurik ez dagoenean, zuek eztabaidatzen hasten zaretenean edo zuen gauzatxoak lagunei kontatzen dizkiezuenean.

Hori bai gustatzen zaidala! Eta gehienetan, euskaraz egiten duzuenez, entzuten eta ikusten geratzen naiz.

Aurrerantzean euskaraz barra-barra egin dezazuen nire laguntxo berrien jolasa bidaliko dizuet. Nortzuk diren jakin nahiko duzue, ezta? Dinoak, dinosauroak dira! Orain dela gutxi bisitatu nituen Karpinen eta primeran pasatu genuen elkarrekin. Jakin badakit zuek ere gauza asko ikasten ari zaretela dinosauroei buruz eta toki horretan primeran pasatuko zenukete.








Jolas honetan euskaraz eginez nire lagunak margotzea lortu behar duzue eta horrela euren lagunak izango zarete.


Agur eta zintzo jarraitu.

OTSANDA

heldu

IZENA:








LEKUKOA

- Azalpen fitxari jarraituz lekukoa egingo dugu.
- Lehenik, beharrezkoa bada, kartoi mehe bat koloreztatu.
- Ondoren, kono itxurako zati bat moztu.
- Jarraian, kiribildu estalaktita itxura eman arte, eta ertza kolaz itsatsi.
- Azkenik, pinotxo paperarekin koloretako zintak egin eta itsatsi.

BALIABIDEAK:

- Lekukoa egiteko gida.
- Kartoizko tutua.
- Margoak.
- Koloretako zintak.

LEKUKOA EGITEKO GIDA



PETOA

- Betiko moduan, petoak plastikozko poltsak erabiliz egingo ditugu.
- Din A-4an, zuri-beltzean dagoen logoa margotuko dugu.
- Petoa moztuko dugu eta poltsaren aurreko eta atzeko aldeetan itsatsiko dugu.
- Petoaren atzeko aldean ikasle bakoitzak euskararekiko hartu duen konpromisoa idatzi edo itsatsiko du. (Bakoitzak pentsatutako konpromisoen artean gelak gustukoena adostu eta gelako lelo gisa erabil daiteke. Horrekin pankarta edo kartel erraldoiak margotzen ahal dira eta ikastetxea girotzeko erabili).
- Petoa ikastolako Korrika Txikian edo Korrika ofizialean erabiliko du ikasle bakoitzak.

- BALIABIDEAK:

Plastikozko poltsak
Petoa (Din A-4)
Margoak
Guraizeak
Kola







korrika

dek

KARRANTZA-IRUÑEA 2007 MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era

heldu

HITZARI LEKUKOARI ELKARLANARI EUSKARARI HERRIARI



15

Korrika

dek

15



euskaltel



IBILBIDEA

**Behin betiko ordutegia
korrikaren web gunean duzue.**

KARRANTZA

17:30:00

osteguna, 2007ko martxoak 22

BALMASEDA

20:45:30

osteguna, 2007ko martxoak 22

ZALLA

20:45:30

osteguna, 2007ko martxoak 22

GUEÑES

22:23:00

osteguna, 2007ko martxoak 22

SODUPE

22:23:00

osteguna, 2007ko martxoak 22

GORDEXOLA

22:52:15

osteguna, 2007ko martxoak 22

ARABAKO MUGA

22:52:15

osteguna, 2007ko martxoak 22

LAUDIO

23:58:33

osteguna, 2007ko martxoak 22

AMURRIO

1:17:12

ostirala, 2007ko martxoak 23

MURGIA

3:28:30

ostirala, 2007ko martxoak 23

IZARRA

4:14:00

ostirala, 2007ko martxoak 23

POBES

6:20:06

ostirala, 2007ko martxoak 23

MIMBREDO

6:42:51

ostirala, 2007ko martxoak 23

SAGASTIETA

7:08:51

ostirala, 2007ko martxoak 23

RIBABELLOSA

7:55:39

ostirala, 2007ko martxoak 23

RIBAGUDA

8:18:24

ostirala, 2007ko martxoak 23

MIRANDA (BU)

8:39:51

ostirala, 2007ko martxoak 23

BRIÑAS (ERRIOXA)

9:54:36

ostirala, 2007ko martxoak 23

BASTIDA

10:19:18

ostirala, 2007ko martxoak 23

URIZAHARRA

11:50:57

ostirala, 2007ko martxoak 23

TREBIÑU

12:54:39

ostirala, 2007ko martxoak 23

ARGANTZUN

14:07:27

ostirala, 2007ko martxoak 23

LANGRAITZ

16:08:21

ostirala, 2007ko martxoak 23

ASTEGIETA

17:38:42

ostirala, 2007ko martxoak 23

GASTEIZ

17:41:57

ostirala, 2007ko martxoak 23

GAMARRA

21:03:27

ostirala, 2007ko martxoak 23

ARROIABE

21:42:27

ostirala, 2007ko martxoak 23

LANDA

22:37:42

ostirala, 2007ko martxoak 23

GIPUZKOAKO MUGA

22:47:27

ostirala, 2007ko martxoak 23

LEINTZ GATZAGA

2:41:27

larunbata, 2007ko martxoak 24

ARETXABALETA

2:41:27

larunbata, 2007ko martxoak 24

ARRASATE

2:41:27

larunbata, 2007ko martxoak 24

OÑATI

2:41:27

larunbata, 2007ko martxoak 24

larunbata, 2007ko martxoak 24



8. JARDUERA

8-10 URTE

LEGAZPI
2:41:27
larunbata, 2007ko martxoak 24

URRETXU
3:36:03
larunbata, 2007ko martxoak 24

ZUMARRAGA
4:21:33
larunbata, 2007ko martxoak 24

EZKIO-ITSASO
4:21:33
larunbata, 2007ko martxoak 24

ORMAIZTEGI
4:38:27
larunbata, 2007ko martxoak 24

MUTILOA
5:04:27
larunbata, 2007ko martxoak 24

SEGURA
5:17:27
larunbata, 2007ko martxoak 24

IDIAZABAL
5:36:57
larunbata, 2007ko martxoak 24

OLABERRIA
6:02:57
larunbata, 2007ko martxoak 24

BEASAIN
6:21:09
larunbata, 2007ko martxoak 24

LAZKAO
6:43:15
larunbata, 2007ko martxoak 24

ORDIZIA
7:01:27
larunbata, 2007ko martxoak 24

ITSASONDO
7:33:57
larunbata, 2007ko martxoak 24

IKAZTEGIETA
8:06:27
larunbata, 2007ko martxoak 24

ALEGIA
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

TOLOSA
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

IBARRA
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

TOLOSA
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

ANOETA
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

IRURA
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

VILLABONA
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

ANDOAIN
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

URNIETA
11:29:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

HERNANI
13:07:24
larunbata, 2007ko martxoak 24

ASTIGARRAGA
13:07:24
larunbata, 2007ko martxoak 24

OIARTZUN
13:07:24
larunbata, 2007ko martxoak 24

larunbata, 2007ko martxoak 24

ERREENTERIA
14:25:24
larunbata, 2007ko martxoak 24

LEZO
15:04:24
larunbata, 2007ko martxoak 24

PASAI DONIBANE
15:30:24
larunbata, 2007ko martxoak 24

PASAI SAN PEDRO
15:56:24
larunbata, 2007ko martxoak 24

PASAI ANT XO
16:15:54
larunbata, 2007ko martxoak 24

DONOSTIA
16:33:14
larunbata, 2007ko martxoak 24

LASARTE
19:28:44
larunbata, 2007ko martxoak 24

ORIO
21:37:26
larunbata, 2007ko martxoak 24





8. JARDUERA

8-10 URTE

ZARAUTZ
22:29:26

larunbata, 2007ko martxoak 24

GETARIA
23:28:35

larunbata, 2007ko martxoak 24

ZUMAIA
0:00:57

igandea, 2007ko martxoak 25

ZUMAIA
2:08:41

igandea, 2007ko martxoak 25

ZESTOA
2:44:26

igandea, 2007ko martxoak 25

AZPEITIA
3:35:47

igandea, 2007ko martxoak 25

AZKOITIA
4:08:17

igandea, 2007ko martxoak 25

URRETXU
5:39:56

igandea, 2007ko martxoak 25

DESKARGA MENDATEA
6:12:26

igandea, 2007ko martxoak 25

BERGARA
8:28:17

igandea, 2007ko martxoak 25

ELGETA
8:28:17

igandea, 2007ko martxoak 25

ELORRIO
8:53:18

igandea, 2007ko martxoak 25

ABADIÑO
9:38:09

igandea, 2007ko martxoak 25

DURANGO
10:01:33

igandea, 2007ko martxoak 25

IURRETA
10:43:48

igandea, 2007ko martxoak 25

MATIENA
10:43:48

igandea, 2007ko martxoak 25

BERRIZ
11:03:57

igandea, 2007ko martxoak 25

ZALDIBAR
11:30:36

igandea, 2007ko martxoak 25

MALLABIA
11:51:24

igandea, 2007ko martxoak 25

ERMUA
12:14:48

igandea, 2007ko martxoak 25

EIBAR
15:42:29

igandea, 2007ko martxoak 25

SORALUZE
15:42:29

igandea, 2007ko martxoak 25

ELGOIBAR
15:42:29

igandea, 2007ko martxoak 25

MENDARO
15:42:29

igandea, 2007ko martxoak 25

DEBA
16:04:29

igandea, 2007ko martxoak 25

BIZKAIA
17:01:41

igandea, 2007ko martxoak 25

ONDARROA
17:08:11

igandea, 2007ko martxoak 25

BERRIATUA
17:40:02

igandea, 2007ko martxoak 25

MARKINA
17:59:32

igandea, 2007ko martxoak 25

AULESTI
19:13:38

igandea, 2007ko martxoak 25

GIZABURUAGA
19:45:29

igandea, 2007ko martxoak 25

LEKEITIO
21:04:47


igandea, 2007ko martxoak 25

ISPASTER
21:30:47

igandea, 2007ko martxoak 25

BUSTURIALDEA
21:44:26

igandea, 2007ko martxoak 25






8. JARDUERA

8-10 URTE

EA 21:57:26 igandea, 2007ko martxoak 25	astelehena, 2007ko martxoak 26	MUNGIA 4:57:59 astelehena, 2007ko martxoak 26	astelehena, 2007ko martxoak 26
NATXITUA 22:24:05 igandea, 2007ko martxoak 25	BUSTURIA 1:19:35 astelehena, 2007ko martxoak 26	MARURI 5:44:47 astelehena, 2007ko martxoak 26	ALGORTA 8:40:36 astelehena, 2007ko martxoak 26
IBARRANGELU 22:37:44 igandea, 2007ko martxoak 25	MURUETA 1:26:05 astelehena, 2007ko martxoak 26	ANDRAKA 6:14:02 astelehena, 2007ko martxoak 26	ERROMO 9:34:14 astelehena, 2007ko martxoak 26
ELANTXOBE 22:52:41 igandea, 2007ko martxoak 25	BUSTURIA 2:06:23 astelehena, 2007ko martxoak 26	LEMOIZ 6:27:02 astelehena, 2007ko martxoak 26	ZUBIA 9:55:41 astelehena, 2007ko martxoak 26
IBARRANGELU 22:57:53 igandea, 2007ko martxoak 25	SUKARRIETA 2:12:53 astelehena, 2007ko martxoak 26	GORLIZ 6:40:02 astelehena, 2007ko martxoak 26	PORTUGALETE 10:02:11 astelehena, 2007ko martxoak 26
MURUETAGANE 23:11:32 igandea, 2007ko martxoak 25	MUNDAKA 2:19:23 astelehena, 2007ko martxoak 26	PLENTZIA 7:02:08 astelehena, 2007ko martxoak 26	SANTURTZI 10:35:37 astelehena, 2007ko martxoak 26
ARTEAGA 23:57:41 igandea, 2007ko martxoak 25	BERMEO 2:45:23 astelehena, 2007ko martxoak 26	BARRIKA 7:18:23 astelehena, 2007ko martxoak 26	ZIERBENA 11:26:39 astelehena, 2007ko martxoak 26
GERNIKA 0:58:08 astelehena, 2007ko martxoak 26	GAZTELUBEGI 3:21:08 astelehena, 2007ko martxoak 26	URDULIZ 7:30:05 astelehena, 2007ko martxoak 26	ZIERBENA-PORTUA 12:31:39 astelehena, 2007ko martxoak 26
FORUA 1:05:17	BAKIO 3:43:53 astelehena, 2007ko martxoak 26	BERANGO 8:26:38	LA CUESTA 12:31:39 astelehena, 2007ko martxoak 26



HONDARTZA
12:31:39

astelehena, 2007ko martxoak 26

SAN JULIAN
12:31:39

astelehena, 2007ko martxoak 26

MUSKIZ
12:31:39

astelehena, 2007ko martxoak 26

LAS CARRERAS
12:57:39

astelehena, 2007ko martxoak 26

GALLARTA
13:13:54

astelehena, 2007ko martxoak 26

SAN FUENTES
13:27:33

astelehena, 2007ko martxoak 26

ORTUELLA
13:39:15

astelehena, 2007ko martxoak 26

NOCEDAL
13:43:09

astelehena, 2007ko martxoak 26

AYEGA AUZUNEA
14:00:22

astelehena, 2007ko martxoak 26

TRAPAGA
14:08:49

astelehena, 2007ko martxoak 26

SESTAO
14:41:00

astelehena, 2007ko martxoak 26

BARAKALDO
15:16:45

astelehena, 2007ko martxoak 26

“ZORROTZA”
16:15:15

astelehena, 2007ko martxoak 26

BARAKALDO
16:25:00

astelehena, 2007ko martxoak 26

LUTXANA
16:51:00

astelehena, 2007ko martxoak 26

IBAIA
16:51:00

astelehena, 2007ko martxoak 26

ERANDIO
16:57:30

astelehena, 2007ko martxoak 26

LEIOA
17:34:52

astelehena, 2007ko martxoak 26

TXORIERRI
18:09:00

astelehena, 2007ko martxoak 26

ERANDIO GOIKOA
18:54:30

astelehena, 2007ko martxoak 26

BILBO-ENEKURI
18:54:30

astelehena, 2007ko martxoak 26

IRTEERA
22:06:15

astelehena, 2007ko martxoak 26

SONDIKA
22:42:39

astelehena, 2007ko martxoak 26

DERIO
22:42:39

astelehena, 2007ko martxoak 26

ZAMUDIO
23:04:45

astelehena, 2007ko martxoak 26

LEZAMA
23:28:09

astelehena, 2007ko martxoak 26

LARRABETZU
23:48:18

astelehena, 2007ko martxoak 26

ERLETXE
0:20:48

astearte, 2007ko martxoak 27

ZORNOTZA
0:35:45

astearte, 2007ko martxoak 27

LEMOA
1:17:21

astearte, 2007ko martxoak 27

BEDIA
1:33:36

astearte, 2007ko martxoak 27

USANSOLO
1:46:36

astearte, 2007ko martxoak 27

GALDAKAO
1:59:36

astearte, 2007ko martxoak 27

APERRIBAI
2:35:21

astearte, 2007ko martxoak 27

heldu



8. JARDUERA

8-10 URTE

ETXEBARRI
2:48:21
astearte, 2007ko martxoak 27

BASAURI
3:07:51
astearte, 2007ko martxoak 27

SAN MIGEL
3:53:21
astearte, 2007ko martxoak 27

ARRIGORRIAGA
4:12:51
astearte, 2007ko martxoak 27

UGAO
4:46:39
astearte, 2007ko martxoak 27

ZEBERIO
4:59:39
astearte, 2007ko martxoak 27

ARTEA
6:17:39
astearte, 2007ko martxoak 27

IGORRE
6:43:39
astearte, 2007ko martxoak 27

ARTEA
7:09:39

AREATZA
7:38:54
astearte, 2007ko martxoak 27

ZEANURI
7:58:24
astearte, 2007ko martxoak 27

OTXANDIO
9:29:24
astearte, 2007ko martxoak 27

ARABAKO MUGA
9:33:57
astearte, 2007ko martxoak 27

LEGUTIO
10:22:03
astearte, 2007ko martxoak 27

LANDA
10:38:18
astearte, 2007ko martxoak 27

OZETA
11:07:33
astearte, 2007ko martxoak 27

MATURANA
11:27:03
astearte, 2007ko martxoak 27

GEBARA
11:36:09
astearte, 2007ko martxoak 27

ETURA
11:47:51
astearte, 2007ko martxoak 27

AUDIKANA
11:53:42
astearte, 2007ko martxoak 27

DALLO
12:11:15
astearte, 2007ko martxoak 27

DULANTZI
12:20:21
astearte, 2007ko martxoak 27

ADANA
13:16:54
astearte, 2007ko martxoak 27

GEREÑU
13:35:45
astearte, 2007ko martxoak 27

ALAIZA
13:55:15
astearte, 2007ko martxoak 27

AGURAIN
14:27:45

astearte, 2007ko martxoak 27

ORDOÑANA
14:55:03
astearte, 2007ko martxoak 27

ZALDUONDO
15:15:51
astearte, 2007ko martxoak 27

ARAIA
15:40:33
astearte, 2007ko martxoak 27

ALBEIZ
16:09:09
astearte, 2007ko martxoak 27

ILARDUIA
16:22:48
astearte, 2007ko martxoak 27

EGINO
16:35:09
astearte, 2007ko martxoak 27

NAFARROAKO MUGA
16:52:03
astearte, 2007ko martxoak 27

ALTSASU
21:07:30
astearte, 2007ko martxoak 27



ETXARRI ARANATZ
21:07:30
asteartea, 2007ko martxoak 27

ETXARREN
21:07:30
asteartea, 2007ko martxoak 27

ETXABERRI
21:07:30
asteartea, 2007ko martxoak 27

ASTITZ
0:22:30
asteazkena, 2007ko martxoak 28

LEKUNBERRI
0:22:30
asteazkena, 2007ko martxoak 28

IRURTZUN
0:22:30
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ATONDO
1:14:30
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ASIAIN
3:14:06

asteazkena, 2007ko martxoak 28

IZKUE
3:14:06
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ETXAURI
3:14:06
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ETXARRI
3:14:06
asteazkena, 2007ko martxoak 28

BELASKOAIN
3:14:06
asteazkena, 2007ko martxoak 28

GARES
6:09:36
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ZIRAUKI
6:09:36
asteazkena, 2007ko martxoak 28

VILLATUERTA

11:30:03
asteazkena, 2007ko martxoak 28

LIZARRA
11:30:03
asteazkena, 2007ko martxoak 28

MURIETA
11:30:03
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ANTZIN
11:30:03
asteazkena, 2007ko martxoak 28

AZEDO
11:30:03
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ARABAKO MUGA
11:30:03
asteazkena, 2007ko martxoak 28

KANPEZU
11:54:45
asteazkena, 2007ko martxoak 28

GENEBILLA
12:21:24
asteazkena, 2007ko martxoak 28

CABREDO
12:38:57
asteazkena, 2007ko martxoak 28

MARAÑON
12:54:33
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ANGOSTIÑA
13:19:15
asteazkena, 2007ko martxoak 28

BERNEDO
13:34:12
asteazkena, 2007ko martxoak 28

LAPOBLACION
14:08:39
asteazkena, 2007ko martxoak 28

MEANO
14:15:48
asteazkena, 2007ko martxoak 28

heldu



8. JARDUERA

8-10 URTE

KRIPAN
14:47:39
asteazkena, 2007ko martxoak 28

ELBILLAR
15:14:18
asteazkena, 2007ko martxoak 28

BIASTERI
15:56:33
asteazkena, 2007ko martxoak 28

LABARKA
16:42:03
asteazkena, 2007ko martxoak 28

OION
18:23:27
asteazkena, 2007ko martxoak 28

NAFARROAKO MUGA
18:59:51
asteazkena, 2007ko martxoak 28

BIANA
21:16:21
asteazkena, 2007ko martxoak 28

MENDAVIA
21:16:21
asteazkena, 2007ko martxoak 28

LODOSIA
1:42:51
osteguna, 2007ko martxoak 29

CARCAR
1:42:51
osteguna, 2007ko martxoak 29

ANDOSILLA
1:42:51
osteguna, 2007ko martxoak 29

SAN ADRIAN
1:42:51
osteguna, 2007ko martxoak 29

AZKOIEN
1:42:51
osteguna, 2007ko martxoak 29

MARTZILA
3:19:03
osteguna, 2007ko martxoak 29

ALESBES
3:19:03
osteguna, 2007ko martxoak 29

CADREITA

11:09:00
osteguna, 2007ko martxoak 29

CASTEJON
11:09:00
osteguna, 2007ko martxoak 29

CASCANTE
11:09:00
osteguna, 2007ko martxoak 29

MURTXANTE
11:09:00
osteguna, 2007ko martxoak 29

TUTERA
11:09:00
osteguna, 2007ko martxoak 29

ARKETAS
11:09:00
osteguna, 2007ko martxoak 29

VALTIERRA
11:09:00
osteguna, 2007ko martxoak 29

LOS ABETOS
11:09:00
osteguna, 2007ko martxoak 29

CAPARROSO
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

MURILLO
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

PITILLAS
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

BEIRE
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

ERRIBERRI
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

TAFALLA
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

SAN MARTIN UNX
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

LERGA
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

ESLAVA
18:30:21
osteguna, 2007ko martxoak 29

OIBAR
0:41:30

heldu



8. JARDUERA

8-10 URTE

ostirala, 2007ko martxoak 30

ZANGOZA

0:41:30

ostirala, 2007ko martxoak 30

LEDEA

0:41:30

ostirala, 2007ko martxoak 30

JUDASEN BENTA

0:41:30

ostirala, 2007ko martxoak 30

IRUNBERRI

0:41:30

ostirala, 2007ko martxoak 30

DOMEÑU

0:41:30

ostirala, 2007ko martxoak 30

NABASKOZE

0:41:30

ostirala, 2007ko martxoak 30

EZKAROZE

3:30:30

ostirala, 2007ko martxoak 30

OTSAGABIA

3:30:30

ostirala, 2007ko martxoak 30

EZKAROZE

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

JAURRIETA

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

ABAUREGAINA

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

GARAIOA

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

ARIBE

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

GARRALDA

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

AURIZBERRI

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

ERRO

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

ZUBIRI

9:55:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

EUGI

10:47:57

ostirala, 2007ko martxoak 30

IRURITA

16:07:45

ostirala, 2007ko martxoak 30

ELIZONDO

16:07:45

ostirala, 2007ko martxoak 30

ERRATZU

16:07:45

ostirala, 2007ko martxoak 30

IZPEGI

16:07:45

ostirala, 2007ko martxoak 30

BAIGORRI

16:59:45

ostirala, 2007ko martxoak 30

D. GARAZI

18:11:15

ostirala, 2007ko martxoak 30

LARZABALE

20:08:15

ostirala, 2007ko martxoak 30

MAULE

22:57:15

ostirala, 2007ko martxoak 30

DONAPALEU

1:46:15

larunbata, 2007ko martxoak 31

HAZPARNE

5:01:15

larunbata, 2007ko martxoak 31

KANBO

6:12:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

ITSASU

6:45:15

larunbata, 2007ko martxoak 31

EZPELETA

7:17:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

ZURAIDE

7:37:15

larunbata, 2007ko martxoak 31

SENPERE

8:29:15

larunbata, 2007ko martxoak 31

UZTARITZE

10:00:15



8. JARDUERA

8-10 URTE

larunbata, 2007ko martxoak 31

MILAFRANGA

10:32:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

HIRIBURU

11:11:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

BAIONA

11:50:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

MIARRITZE

13:41:15

larunbata, 2007ko martxoak 31

ARBONA

14:33:15

larunbata, 2007ko martxoak 31

BIDARTE

15:05:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

DONIBANE LOHIZUNE

15:57:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

AZKAINE

17:09:15

larunbata, 2007ko martxoak 31

URRUNA

18:20:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

HENDAIA

19:12:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

GIPUZKOA

19:25:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

HONDARRIBIA

21:35:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

IRUN

21:35:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

ENDARLATSA

21:35:45

larunbata, 2007ko martxoak 31

BERA

2:44:30

igandea, 2007ko apirilak 1

DONEZTEBE

2:44:30

igandea, 2007ko apirilak 1

ZUBIETA

2:44:30

igandea, 2007ko apirilak 1

SALDIAS

2:44:30

igandea, 2007ko apirilak 1

OROKIETA

6:12:30

igandea, 2007ko apirilak 1

LIZASO

6:12:30

igandea, 2007ko apirilak 1

OSTIZ

6:12:30

igandea, 2007ko apirilak 1

ARRE ROTONDA

7:07:45

igandea, 2007ko apirilak 1

ATARRABIA

7:24:00

igandea, 2007ko apirilak 1

BURLATA

7:44:09

igandea, 2007ko apirilak 1

MENDILLORRI

8:07:33

igandea, 2007ko apirilak 1

SOTO LEZKAI

8:32:54

igandea, 2007ko apirilak 1

ARROSADIA

8:45:54

igandea, 2007ko apirilak 1

ZABALGUNEA

9:00:12

igandea, 2007ko apirilak 1

ALDE ZAHARRA

9:10:36

igandea, 2007ko apirilak 1

TXANTREA

9:30:06

igandea, 2007ko apirilak 1

ANTSOAIN

9:51:33

igandea, 2007ko apirilak 1

ERROTXAPEA

10:01:57

igandea, 2007ko apirilak 1

BERRIOZAR

10:24:03

igandea, 2007ko apirilak 1

SANDUZELAI

10:46:09

igandea, 2007ko apirilak 1

DONIBANE

10:52:39

igandea, 2007ko apirilak 1

ERMITAGAÑA

11:08:54

igandea, 2007ko apirilak 1

MENDEBALDEA

11:14:45

igandea, 2007ko apirilak 1

BARAÑAIN

11:19:57

igandea, 2007ko apirilak 1

ZIZUR

11:36:12

igandea, 2007ko apirilak 1

ZIZUR TXIKI

12:11:18

igandea, 2007ko apirilak 1

ITURRAMA

12:30:48

igandea, 2007ko apirilak 1

IRUÑEA (BUKAERA)

13:11:06

igandea, 2007ko apirilak 1

